

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 843

*221/2022 EBAZPENA, otsailaren 4koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Carolina Angulo Corcuera andrea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkari (Zuzendaritza Medikoa) izendatu den, izendapen askez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

1776/2021 Ebazpenaren, azaroaren 11koa, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkari (Zuzendaritza Medikoa) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Carolina Angulo Corcuera andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Arabako Erakunde Sanitario Integratuan Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkari (Zuzendaritza Medikoa) lanpostua.

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Carolina Angulo Corcuera andrea izendatzea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Zuzendaritzako Idazkari (Zuzendaritza Medikoa) Osakidetzako Araba Erakunde Sanitario Integratuan.

Bigarrena.– Izendapen honek 2022ko otsailaren 7tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 4a.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentea,  
JOSÉ MARÍA PÉREZ RAMOS.